

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUD**DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE**

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

25 langile baino gutxiagoko ETEek jada eska ditzakete Nafarroako Gobernuak kontratazio finkoarentzat emango dituen laguntzak

Ekonomia suspertzeko neurri berri bat da, 4,6 milioi euroz hornitua, eta 2.200 lanpostu sortzea eragingo duena.

Miércoles, 16 de mayo de 2012

25 langile baino gutxiagoko enpresek jada eska ditzakete Nafarroako Gobernuak [kontratazio finkoarentzat emango dituen laguntzak](#). Hauek barnean hartzen dituzte 4.800 euro arteko diru-laguntzak langabeei egindako kontratu finko bakoitzeko edo finko bilakatzen den behin-behineko kontratu bakoitzeko. Neurri hau 4,6 milioi euroz hornitu da, 2.000 eta 2.200 lanpostu artean finantzatzeko.

Gaur, maiatzak 16, argitaratu dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean bereziki zailtasun gehien dituzten kolektiboen artean enplegua sustatzea helburu duen deialdi honen oinarriak. Laguntzak azaroaren 30era arte egongo dira indarrean eta Nafarroako Gobernuak ekonomia suspertzeko hartzen ari den neurrietako bat dira.

Laguntza hauek enpresentzat diren enplegua sustatzeko beste neurri batzuei gehitu zaie, esate baterako, kontratazioentzako kenkari fiskalak eta [gizarteratzeko oinarritzko errentaren hartzaileak kontratatuzko](#) laguntzak. Neurri hauek guztiak Nafarroako Gobernuak osatzen duten bi alderdiek, UPN eta PSN, ostiralean sinatutako akordioan jaso ziren. Akordio horren arabera [33,5 milioi euroko inbertsioa egingo da enplegua sortzeko](#), obra publikoa bultzatzeko eta ekonomia dinamizatzeko (Nafarroan Ekonomia eta Enplegua Dinamizatzeko Plana, Nafarroarentzat estrategikoak diren proiektuak bizkortzea, enplegua sustatzea eta kontratuei buruzko legeria aldatzea).

25 langile baino gutxiagoko enpresek kontratatuzko laguntzak

Foru Komunitatean lantokiak dituzten 25 langile baino gutxiagoko enpresetan (pertsona fisiko edo juridikoak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak) kontratazio finkora bultzatzeko 4.800 euro arteko laguntza, batez beste kontratazioaren lehen urtean enpresak Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuoten % 100 da. Diru-laguntzak Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatzeko dira %50en.

Diru-laguntza hau jaso nahi duten enpresek langileak honako kolektibo hauetatik kontratatu beharko dituzte, langile-kopurua handituz: 30

urtetik beherako gazteak, 30etik 44 urtera bitarteko adina izanik iraupen luzeko langabe (urtebete baino gehiago) direnak, eta 45 urtetik gorakoak. Behin-behineko kontratu bat kontratu finko bilakatzen denean, ez da behar langile-kopurua handitzea.

Nafarroako Gobernuak 4.800 euroak ordainduko ditu 30etik 44 urtera bitarteko adina duten iraupen luzeko langabeak kontratatzeagatik, eta 45 urtetik gorakoak kontratatzeagatik. 45 urtetik gorako adina izanik iraupen luzeko langabe direnen kontratazioan eta 30 urtetik beherakoen kontratazioan, Nafarroako Gobernuak 4.800 eurora arte osatuko ditu Espainiako Gobernuak 3/2012 Errege Dekretuaren bidez jada finkatutako laguntzak (1.000 eurotik 1.500 eurora bitartekoak, honi erantsitako taulan azalduta dagoen bezala).

Bestalde, gogoan izan behar da 25 langile baino gutxiagoko enpresa hauek, Nafarroako gainerako merkataritza-enpresek bezala, [langileen kontratazio finkoengatik kenkari fiskalak](#)

lor ditzakete (enplegua sortzeko laguntzak, 615. or.). Kenkari fiskal hauek 4.027 eurokoak dira lan-kontratu finko bakoitzeko eta 1.500 eurokoak kontratu finko bilakatutako behin-behineko kontratu bakoitzeko. Eta enpresa txikien kasuan (10 milioi eurotik beherako fakturazioa dutenak), kenkari horiek 5.469 eta 1.953 eurokoak dira, hurrenez hurren. Nafarroako Gobernuak pasa den otsailean jada aurreikusi zuen, 2012rako koadro makroekonomikoan, Sozietateen gaineko Zergaren kapituluan 10,3 milioi euro gutxiagoko diru-sarrera izango zuela neurri hau aplikatzeagatik.

Gizarteratzeko oinarrizko errenta jasotzen dutenen kontratazioa

Edozein tamainatako enpresek, gainera, Nafarroako Gobernuak duela gutxi aurkeztu zituen gizarteratzeko oinarrizko errenta jasotzen dutenak kontratatzeko laguntzak izan ditzakete. Gizarte Politikako Departamentuak 3.848,40 euro arteko diru-laguntzak emango ditu gizarteratzeko oinarrizko errenta edo lan-munduratzeko laguntzak jasotzen dituztenen kontratazio bakoitzeko, maiatzaren 11n Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako [deialdi](#)aren arabera.

Gainera, osagarri gisa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enpresen Gizarte Segurantzako kuoten % 100 finantzatuko du sei hilabetez, entitate kontratatzailea tokiko erakundea bada edo Nafarroako irabazi asmorik gabeko erakunde bat bada, eta kontratuak edo kontratuak langile-kopurua handitzea ekartzen duenean. Horretarako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 625.000 euroko aurrekontu bat prestatu du hasiera batean. Gaur Nafarroako Aldizkari Ofizialak joan den ostiralean argitaratutakoaren [deialdi osagarri](#)aren berri ematen du.